

Haur Hezkuntzako ikasle gazteenak Munduari Bira antzerkia prestatzen ari dira

2008/06/04

Ekainaren 11n, goizeko 10:00etan, Haur Hezkuntzako ikasleek, 1. mailakoek zehazkiago esanda, "**Munduari Bira**" antzeztuko dute, antzerki lan bat euren prestatua **5-6 urteko haurrentzat**. Egun horretan, Luis Ezeiza herri ikastetxeko eta Arizmendi ikastolako haurrak etorriko dira Huhezira, antzerki lana ikustera, eurentzat propio prestatu da-eta antzezlana.

Haur Hezkuntzako ikasleek **sei txoko** prestatu dituzte bidaia antzezteko: Txina, India, Grezia-Erroma, Alaska, Mexiko eta Egipto, denak ere fakultatearen barruan. Horiez gain, fakultateko klaustroan **akelarre bat** antzeztuko dute.

Antzezlana prestatzeaz batera, Haur Hezkuntzako ikasleek **blog bat** sortu dute, Munduari Bira, eta hor prestatuntza lanen berri ematen ari dira. Urtero-urtero, Haur Hezkuntzako ikasleek antzerki lan bat prestatu eta antzeztu behar izaten dute, lehen mailan dabiltzan bitartean, lan bat bereziki haurrentzat sortua.

